

ANÓNIMA

TXUSPO POYO

ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN - EXHIBITION

19 OTSAILA > 17 MAIATZA
FEBRERO MAYO
FEBRUARY MAY 2026

Bilbao

urbegi

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

EUSKARA

ANÓNIMA

TXUSPO POYO


KOMISARIOA: ÁLVARO DE LOS ÁNGELES

Anónima da Txuspo Poyok orain arte egin duen erakusketarik zabalena. Lehen aldiz aurkezten du hainbat une eta testuingurutatik datozen eta, modu irekian, elkarren artean hizketan ari diren proiektuen hautaketa zabal bat. Horiek guztiek etengabe eraldatzen ari den garai baten konplexutasuna eta paradigma aldaketak islatzen dituzte. Bestalde, *Anónima* iristen den lurralde bat da, lortutako nolabaiteko esperientzia bat, baliabide metodologikoen eta ustekabeko topaketen bilduma bat, zeintzuk beren buruari aurre egitera, beren burua zalantzan jartzera eta beren buruaren bidez sortzera bideratuta dauden. Eta

Anónima da, halaber, irudiak, hitzak, objektuak, materialak eta legatuak bereganatzeko kulturak duen modua. Bere egiten ditu, eta eremu publikora bidaltzen ditu, beste pertsona batzuentzat baliagarri izateko, eta horiek, aldi berean, berriz mugiarazi ahal izango dituzte.

Txuspo Poyo (Altsasu, 1963) diziplina anitzeko artista bat da. Iraupen luzeko proiektuak egiten ditu, eta, ehun batean bezala, ikerketa-esparruak eta ekintza-eremuak elkartzen ditu haietan. Txuspo Poyok ez du prozesu-metodologia uniboko bat abian jartzen, edozein proiektutarako balio duena. Aitzitik, lanak berak eta hari lotutako

ikerketak definitzen dute jarduteko modu pertsonalizatua eta, era berean, osatzen dute azken antolaera. *Anonimotasuna*, halakorik bada, ez du zehazten identitatea ezkutatzeko, ez erantzukizunak salbuesteak. Hainbat material erabiltzeak zehazten du hori, hala nola prentsako papera, zeluloidea, posta-txartelak, erabilitako objektuak, batzuk zenbait bildumatakoak..., garai batetik eratorriak, leku batekoak eta egile mugaezinekoak direnak. Ziurgabetasun horiek eta izaera prospektiboko lan batek eskaintzen duen ziurtasuna uztartuta, bere obra eremu emankorra da erreferentziei dagokienez, eta irekia interpretazioak egiteko.



Gorpu bikainak

2001-2025
Hilberriak gure garaitik pasatzen diren pertsonen, animalien edo gauzen lekuko eta belaunaldien legatu dira. Egunkari-orrietan esku hartzea eta artxibo bisual bihurtzea omenaldi bat egitea da. Urtebetetzeak ospatzea eta grabatzea bezala.

Zeruko gorputzak

2023-
Vatikanoko meteoritoen bildumakoa den Ilargiaren irudiak inpaktuak ditu azalean. Hilarriek kometen antzinako irudiak simulatzen dituzte. Mahai baten gainean, objektu batzuek denbora transzendentea metatzen dute.

U.N (Inverse)

2010
NBEren maketa, kanpai bat, pendulu bat, bere banderaren bi *blueprint*. II. Mundu Gerrak eragindako hondamainen ondoren sortutako instituzio honek mundu hobe baten baikortasuna zabaldu zuen. Amesgaizto bihurtutako ametsa.

Delay Glass

2007-2025
Duchampen pieza amaitu gabea eta kaskarra, hainbestetan interpretatutako *Beira Handia*, zaharberitze teknologikoaren bidez, desiraren eta historiaren arteko ekintza erlazionalaren motorra da hemen. Proiektuak animazioarekin, 3Dko objektuekin eta kristalaren eta ispiluen gainean azidoarekin grabatutako zatiek zabal-tzen du obra.

Izaro

2012-2018
Hiru kontakizunetan banatzen den saiakera dokumentala. Lurralde-jurisdikzioa, Magdalena eguneko tradizioa, emakumezkoen eta gizonezkoen izenak, Izaro Films ekoiztetxea eta Seychelles uharteetako bandera duen atunontzi bat.

Engañaiko tunela

2014-2016
Porrot frankista baten historia: Santander Mediterraneoarekin komunikatzea amaitu gabeko tunel baten bidez. Preso politikoak eskulan gisa hartuta, silikosia, elefante bat doluaren sinbolo gisa eta E letra zaharberritua.

Zuhaitz-etxea

2001-2007, 2018
Zuhaitz batean etxe bat eraikitzea haurtzaroko amets bikoitza da, kidetza eta askatasunarena. Kokapenari buruzko arazoek, espazio publikoan mantentzeko zorrotasunak eta behin betiko uzteak bat egiten dute helduen munduarekin.

JARDUERAK

Inaugurazio-elkarrizketa

Otsailak 19, osteguna
18:00etan
Bastida Aretoa
Txuspo Poyo eta
Álvaro de los Ángeles

Sarrerako bisitak

Ostegunero, 18:30ean
Erakusketa Aretoa

Elkarrizketa irekia

Martxoak 11, asteazkena
17:00etan
Bastida Aretoa
Fernando Bayón eta Jaime Cuenca
Hondakina, oszilazioa, lekualdaketa.
Elkarrizketa, Txuspo Poyoren
Anonimarekin

Eskolentzako tailerrak

Martxoa eta apirila
Eskolekin hitzartuta
info@azkunazentroa.eus

Kontsultatu programa osoa + inskripzioak



LG BI 00057-2026

Kabinete pedagogikoak II

2021
Jose Calasanzio sortu zuen Nazareno ikastetxea Erroman 1640an. Lehen ikastetxe publikoa eta doakoa izan zen. Laurehun urte geroago, lobby batek erosi zuen luxuzko hotel bihurtzeko. Zentzurik eza, garaiaren joera.

Kabinete pedagogikoak I

2020
Natura-zientzietako kabineteak zituzen XX. mendeko ikastetxe erlijioso asko itxi edo eskuz aldatu dira. Misio ebanjelizatzaileek aspaldi ekarritako animalia exotikoek, fosilek eta herbarioek berezko kolonialismoa islatzen dute.

Aurkako giroak/ Iltzeak eta mailuak

2004-2025
Artistaren lehen 3D animazio-bideoa. Programazio digitalarekin —hau da, beste tresna batekin— eraikitako eraikuntza-tresna —mailuak—. Horrekin batera, 120 mailu, kirtenetan «dichos como clavos» idatzita dutela.

Historia, Denbora, Albisteak, Ispilua eta Garaipena

2023-
Abian den proiektu honek zalan-tzan jartzen du kulturari eta politikari aplikatutako diseinu grafikoaren itxurazko neutraltasuna. Harritzekoa bada ere, ideologia, garai eta nazionalitate desberdinetako bost aldizkari antzeko diseinua erabiltzen dute beren azaletan.

Estudioa

2026
Gela bat norberarena, denborak eta espazioak artistaren eta bere lanen bidez bat egiten duten lekua. Birsorkuntzatik urrunduta, estudio honek joko-taula gisa funtzionatzen du, non konbinazio guztiak oraindik posible diren.

Postalak

2010-2012
Erabilitako posta-txartel hauetan, identitatearen, askatasun-ametsaren eta *souvenir*aren iruditegi gisa eraikitako paisaia eskuz idatzitako testigantzekin osatzen da. Mundutik desagertutako materialtasunak memoriako baliabideak aktiba ditzake oraindik.

Fotogramaren bilbea

1995-1998
Zerrenda berdinetan moztutako eta elkarren artean txirikordatutako bi argazki berdinek irudi bera sortzen dute. Baina orain, gainera, ehun bat dira. Simulazioaren logika, formula matematiko gisa kontatuta.

Zeluloideak

1993-1996
35mm eta 16mm-ko zatiek eginda dagoen sistema honek esperimentatzeko modua ematen du, artearen eta hiriaren, sorkuntzaren eta aurkikuntzaren arteko gurutzaketa gisa funtzionatzen duen lurralde batean.